

VITAL FUNDAZIOAren 2024-2025 ingeles-bekak (teknikoa eta komertziala)

Unibertsitateko eta/edo Lanbide Heziketako ikasle edo tituludunentzat

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

- Araban erroldatuta izatea, 2023ko urtarrilaren 1etik behintzat.
- Lanbide Heziketako ikastetxe edo unibertsitate bateko edozein Goi-mailako Graduako tituludunak edo ikasleak.
- Ziurtagiri eta/edo proba espezifiko bidez ingeleseko B1 gutxieneko maila egiaztatzea.
- Kutxabanken egoera aktiboan dagoen kontu baten titularrak izatea.
- Deialdi honen oinarriak onartzea.

Helburua

Goi Mailako Lanbide Heziketako eta/edo Unibertsitateko tituludun edo ikasle arabarrei ingeleseko ezagutzak hobetzeko aukera ematea, batez ere maila teknikoan eta komertzialean.

Programaren ezaugarri orokorrak

1. Laguntza-kopurua:

10 prestakuntza-beka Idiomas Vital Fundazioan. 2024-25 ikasturtea.

2. Laguntzen zenbateko motak:

Idiomas Vital Fundazioan, 2024-25 ikasturtean zehar, INGELESA (teknikoa eta komertziala) HOBETZEKO IKASTARORAKO 700na €-ko 10 beka.

100 orduko ikastaroa eskainiko da, 2024ko irailetik 2025eko ekainaren erdialdera. Klaseak ordu eta erdikoak izango dira, 19:30etik 21:00etara, astearte eta ostegunetan, Idiomas Vital Fundazioan.

Kasu berezietan, ikastaroa jarraitzea erraztuko duten tutoretza pertsonalizatuetara jotzeko aukera izango da (lan-txandak, justifikatutako ez-etortzeak eta abar direla-eta), betiere erakundearen irizpide apelaezinaren arabera.

Ikastarora probetxuz joaten diren ikasle matrikulatuei (eskolen % 80ra joatea eta ebaluazioak nahiz proposatutako lanak egitea) matrikularen % 100 itzuliko zaie.

Ikastaroan sartzeko gutxieneko maila B1 izango da. Maila hori ziurtagiri bidez egiazta daiteke edo Idiomas Vital Fundazioan egin beharreko maila-probaren bidez.

Eskaera egiteko epea 2024ko maiatzaren 13tik ekainaren 14ra bitartekoa da.

Maila egiaztatzeko proba 2024ko ekainaren 21ean egingo da. Izena emateko epea amaitutakoan, emailez bidaliko zaizkie proba honi buruzko jarraibideak proba egin behar duten hautagaiei.

Emaitzak 2024ko uztailaren 1ean argitaratuko dira.

Erakundearen erabakia apelaezina da.

Informazioa honako toki hauetan:

Fundación VITAL Fundazioa
Kordoi Etxea – Aiztogile kalea, 24
Orduategia: 8:30etik 14:00etara
Telefonoa: 945 77 68 58
becas@fundacionvital.eus
www.fundacionvital.eus

Idiomas Vital Fundazioa
Estenaga Apezpikuaren kalea z/g
Orduategia: 17:30etik 21:00etara
Telefonoa: 945 25 76 66
www.fundacionidiomas.eus

3. Beka ematea: Eskatutako baldintzak aintzat hartuta, Vital Fundazioak unean-unean erabakiko du eskatutako beka eman edo ez. Beka-kopurua baino hemen ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide gehiago egonez gero, zozketa egingo da 10 beka emateko hurrenkera eta ordezkos posibleak esleitzeko.
4. Bekak eskatzea eta kudeatzea Vital Fundazioan eta Idiomas Vital Fundazioan.
5. Beka onartzea: Beka eman zaiola jakinarazi ondoren, bekadunak 3 lanegun izango ditu beka onartu edo ukatzeko. Onarpenak konturako 100 €-ko aurrerapentzat jotzen den ordainketa dakar, eta ez da itzuliko parte hartzea bertan behera uzten bada.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- NAN
- 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen Arabako edozein udalerritan administrazio-egoitza zuela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria.
- Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako goi-mailako lizentziaduna edo graduatua dela edo ikasketa horiek egiten ari dela egiaztatzen duen agiria.
- Ingeleseko B1 gutxieneko maila duela egiaztatzen duen agiria edo maila-proba egitea.
- Kutxabanken banku-kontu baten titulartasunaren egiazttagiria.

Izena emateak: www.fundacionvital.eus